

INTERNET. Elhuyar Elkarteak atzo aurkeztu zuen webgune berria, Donostiako Miramongo Zientzia Museoa

Zientzia, sarean ere, euskaraz

Zientzia.net atariak hainbat gai eta albiste zientifiko nahiz teknologiko eskuratzeko parada emango digu gaurgero

WEBGUNEAREN EDUKIAK



EGUNEROKO BERRIAK.

Zientzia eta teknologia arloetan munduan barrena izaten diren berriak egunero-egunero eskuragarri izango dira *Zientzia.net* atarian. Batetik, Elhuyarrek lan taldeak aukeratutako berririk interesgarrienak eus-

karaz modu ulergarri eta atseginetan jorratuta irakurri eta jaitsi ahal izango dira; bestetik, osagarri gisa, erdarazko (ingeleza, frantsesa eta gaztelania) webguneek eskaintzen duten informazioa lortzeko *link* edo estekak paratuko dituzte. Bestalde, gaurkotasunezko gaiak hobeki eta sakonki ulertzeko bi astetik behin dosierak eskainiko dituzte.



HIZTEGIA. *Zientzia eta Teknologiaren On-line Hiztegi Entziklopedikoa*, irudiz hornitutako 25.000 kontzeptuko hiztegiaren proiektua bost urteko epean burutzekoa bada ere, berau garatu ahala kontsultagarri izango da sarean. Euskarazko

definizio eta artikuluez gain erdal ordainak (ingeleza, gaztelania eta frantsesa) izango ditu. Esparru zabala eta diziplina artekoa izaki, hainbat jakintza alorretako kontzeptuak bilduko ditu. Engoetik 15.000 termino kontsulta daitezke.



ALDIZKARIA. *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkariaren aleak sarean kontsultatzen ahal dira. 1998az geroztikoak eskura daude dagoeneko, eta aurki 1995etik kaleratutakoak izango dira pantailan irakurgai. Jagoetik 2.300 artikulua bai-

no haboro kontsulta daitezke. Halaber, azken bi zenbakietako artikulua laburrak irakurgai izango dira, baina artikulua nagusiak oso-osorik irakurtzeko paperezko edizioa izango da bide bakarra. Gainera, artikulua PDF formatuan —aldizkariak duen itxura bera mantenduz— zein Internetarako irakurterazagoa den formatuan irakurri ahal izango dira.



BILATZAILEA. Dagoen informazio guzia bilatzeko sistema ahaltsua dute. Esaterako, bilatzailean *genoma* hitza sartuz, *genomak*, *genomaren* eta bestelako aldaerak dituzten artikulua xerkatuko ditu. Berebat, bilaketa aurreratua egin ahal

izango da, data, egile edo gaiaren arabera mugatuz. Artikuluak gaika sailkatuta egongo dira, eta horietan sakondu ahal izango da. Gainera, Aurki bilatzailearen ODP proiektuan oinarritu esteka interesgarriak ere topatuko dituzu.

Juanma Sarasola | DONOSTIA

Zientziak atari berri bat du abian. Euskaraz, gainera. Zientzia eta teknologia arloko berriak, erreportaiak eta esteka interesgarriak eskaintzeko sortu du berriki Elhuyarrek *Zientzia.net* webgunea. Atariak aste batzuk martxan badaramatza ere, atzo egin zuten beronen aurkezpen ofiziala Donostiako Miramongo Zientziaren Museoa. Poz eta esker oneko hitzak nagusitu ziren aurkezpen osoan zehar. «Izan ere, apustu handia izan da urrats hau», azaldu zuen Elhuyarrek gerente Inaki Irazabalbeitiak.

Webgunea urtebeteko lanaren emaitza izan dela gogoratu zuten, eta banaka-banaka izango dituen atal eta zerbitzuak aurkeztu zituzten. Halaber, lanari beldurrik ez, eta ildo berean jarraitu nahi dutela azaldu zuen Irazabalbeitiak. «Lehen urratsa izan da hau». Baina, elkartearen 30. urteurrenaren atarian, euskaraz sarera jalgi egiteko beste hainbat urrats ere egin nahi dituztela esan zuen.

Ildo horretan, gogora ekarri zituzten Elhuyarrek kideek euskara eta teknologia berriak uztartzeko Euskal Herrian egiten ari diren beste hainbat urrats ere: EHUKo Ixa taldearen jarduna, Plazagunearen aurrera urratsa, EGUNKARIAK sarera bideratu ekimenak...

Hausnarketa zenbait

Jakina, teknologia berriei buruzko hausnarketak ere izan ziren atzoko aurkezpen ekitaldian. Jesus Ugaldek *Zientzien gizarteratzea: zergatik eta zertarako* hitzaldia eskaini zuen. Andoni Sagarnak, berriaz, *Edukiak Interneten*.

Lehenak gizarteak zientziari buruzko gaietan informazio landua behar duela gogoratu zuen. «Izan ere, zientzia giza ekintza da, ez gizabanako solteena», esan zuen. Sagarnak, berriaz, «informazio hutsetik» haratago joan behar dela azaldu zuen. «Informazio soila ez da deus ez bada zerbait eraikitzeke erabiltzen».

Atari berrian sartzeko aski da nabigatzailearen bidez www.zientzia.net helbidean sartzeara. Zientzia eta teknologiaren mundura sarbidea da, euskaraz nagusiki, baina baita, —*link* edo esteken bitartez— frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez ere.

IGOR URRESTI | INGENIARIA ETA ZIENTZIA.NET ATARIAREN EGILEETAKO BAT

«Zientzian jakin-mina duen orok euskarazko informazioa eskura izango du»

J.M.S. | DONOSTIA

Igor Urresti ingeniaria *Zientzia.net* webguneke egileetako bat da, eta ataria aurkeztu aitzin beronen nondik norakoak azaldu zizkigun.

■ Noiz eta nola sortu zen ataria egiteko ideia?

Iazko uda bukaeran zientzia dibulgazio lanetan aritutako batzuk Interneten hutsunea zegoela ikusirik proiektua martxan jarri genuen. Egitura eta diseinu garbi eta erabilerraza nahi genituen, eta iazko Gabonetan ataria sarean jarri genuen frogan.

■ Ataria eraikitzeke zein eredutan oinarritu zarete?

Gehienbat Quebecoko *Cyberscience* eta EEBBetako *Nature* eta *Science*-ren webguneetan oinarritu gara. Horietara eta

beste gunetara daramaten estekak sartu ditugu. Bestalde, euskararen berezitasunagatik, hiztegi entziklopedikoaren proiektua ere baliatu dugu webgunean jartzeko.

■ Zenbat jende hartu duzue parte proiektuan?

Hasieran hiru ginen. Orain, aldiz, bost lagun ari gara eguneroko. Datu basea osatu behar da, material historikoa sartzeko, eta, bestalde, egunero berriak aukeratu eta euskaratzen edota datozen bezala esteka gisa egokitzen ditugu. Halaber, gaurkotasuneko gaiak sakontzeko bi astetan behin dosierak egiten ditugu.

■ Zein dira *Zientzia.net*-en helburu nagusiak?

Zientzia dibulgazioan beste urrats bat ematea eta euskaraz teknologia eta Internet alorre-

an dagoen hutsunea betetzea. Erraza da atari bat egitea, baina zaila da edukiz bete eta mantentzea.

■ Zeini zuzendua dago?

Egunerokotasunean jakin-mina duen edozeini, aldizkariak harpidedunei, eta zientziazaleei. Hiztegi entziklopedikoa bukatzean, itzultzaile eta enpresei ere zuzenduko zaie.

■ Zer-nolako harrera espero duzue?

Zuhur jokatu nahi dugu, Interneten, eta euskaraz, ibiltzeko ohitura gutxi dago oraindik. Jendeak, puntualki behintzat, behar duena eskuragarri izatea errazten saiatuko gara.

■ Sareko hiztegi entziklopedikoaz lekora zer berrikuntza sartuko dituzue?

Galde-erantzunen txokoa, ekitaldien agenda eguneratua,

harpidetza zerbitzua —posta elektronikoz asteko gai interesgarrien laburpena jasotzeko—, liburutegi birtuala —*Elhuyar* aldizkariak ale zaharrekin—, eta irratian egiten ditugun saioak artxibo moduan sarean jarri nahi ditugu. Halaber, udazkenean gazteentzako orrialde bat ipintzeko asmoa dugu.

■ Diru laguntzarik jasoko zenuten, ezta?

Bai. Gipuzkoako Diputazioak, Eusko Jaurlaritzak eta Madrilgo CICYT Teknologien Ministerioak lagundu digute.

■ Zer esan nahi du zientzia eta teknologiari buruzko horrelako atari bat euskaraz egoteak?

Internet euskarazko material ez duela betetzea garrantzitsua da. Euskaraz bere lekua izango du komunikabide berrietan. Bestetik, zientzia eta teknologian jakin-mina duen orok euskaraz informazioa eskuragarri izango du.